



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2008-05-15

VIURTEA 1.434.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EDURNE PASABAN MENDIZALEA

## «Irailean Manaslu mendia igotzen saiatzea da gure hurrengo erronka»

**TOLOSA** Bere esku balego «2010erako 14 zortzimilakoak igo» nahi dituela aitortu du, Dhaulagiri igo eta gero

**ASIER IZAGIRRE** «Oso ondo ezagutzen dugu elkar eta niri segurtasuna ematen dit bera taldean izateak» 4-5



E EZEIZA

**Guztia prest dute Aralarko Adiskideek XIV Orduetarako**

**TOLOSALDEA**

Igandean abiatuko dira mendizaleak Berazubitik 2



Joku ugari antolatu dituzte. N.URBIZU

**Txinaren Astea ospatzen ari dira San Juan ikastetxean**

**ALEGIA** Helburua bertako kultura ezagutzea da 3

digitala  
h  
@

**BIHAR**, ostirala, 12:00etan  
Dhualagiri mendia igo berri duten  
**EDURNE PASABAN** eta **ASIER IZAGIRRE**  
mendizale tolosarrekin **elkarrizketa digitala**

HITZAren erredakzioan izango dituzue zuzenean zuen galderak erantzuteko.  
Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.





## Sahararren egoera ulertzeko

**ELKARTASUNA** ● Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Fronte Polisarioaren 35. urtemuga dela eta antolatutako *Maiatza Borrokan* jardunaldien baitan, *Sahara no se vende* dokumentala izan zen herenegun ikusgai Tolosa-

ko Kultur Etxean. Egileetako batekin hitz egiteko aukera ere izan zen. Gaur, 19:30ean, Herbesteko eta lurralde okupatuetaiko leku-kotzak kontatuko dituzte Lorea Agirrek eta Josemari Pastorrek, Kultur Etxean. i.t.



## Gizarte parte-hartzeaz ikasten

**GIZARTEA** ● Gizarte parte-hartzeaz buruzko prestakuntza ikastaroa hasi zen herenegun Tolosako Kultur Etxean. Prestakuntza Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu du, eta Baketik arduratu da antolatzeko. Gaur izan-

go da azken saioa, 19:00etatik aurrera. Lehengoan teoria landu zuten, eta bigarrenean parte-hartzearen mapaz aritu ziren. Gaurkoan, aplikazioaz ariko dira, gatazkak gainditzeko tresna dela azalduz. i.t.

## Laburrak

### Herenegungo lan istripua salatzen elkarretaratzea

**LAN ISTRIPIUA** ● Herenegun Tolosa eta Alegia artean, trenbidearen errailean lanean ari zen 28 urteko gizonetako hil zen trenak harrapatuta. Lan istripu hau salatzen, LAB sindikatuek elkarretaratzeraz deitu du beharko, Tolosako tren geltokian, 12:00etan, eta ELAK, Alegiko geltokian, ordu berean.

### Elkarretaratzea gaur, Palestinaren alde

**GIZARTEA** ● Israelen 60. urteurrena da gaur, eta «israeldarrek palestinarren aurka daramaten zapalketa salatzen», elkarretaratzea egingo dute, gaur, Trianguloan, 19:30ean.

### Legutioko atentatua salatzen elkarretaratzea

**POLITIKA** ● Guardia zibil bat hil eta beste 4 lagun zauritu zituen atzo ETAK Legutioko kuartelean bonba-auto bat lehertarazita. Hori salatzen, Tolosako Udalak Eudelen deialdiarekin bat egin du, eta udaltxearen kanpoaldean elkarretaratzeraz deitu du, gaur, 12:00etan.

### Ziklotomotorren azterketa teknikoak egiteko aukera

**GIZARTEA** ● Ekainaren 16an eta 17an egingo dituzte Ferialekuan ziklotomotorren azterketa teknikoak, 09:30etik 14:30era. Ordua 94367 58 58 zenbakian hartu beharko da.

### Soldadu kalea itxita konpontze lanengatik

**AZPIEGITURAK** ● Ur Zerbitzuak-ek gaur hasiko dituen konpontze lanengatik, Montezkuera ez ingo eta ibilgailurik sartu Soldadu kalea 09:00etatik 19:30era. Oinezkoek apeaderotik joan beharko dute.

### Squash eta Paddel Txapelketak abian

**KIROLA** ● Tolosako Squash taldeak San Joan jaiki direla eta Squash eta Paddel txapelketak antolatuko ditu. Squashekoa, XVIII. Txapelketa da, eta maiatzaren 19tik ekainaren 23ra izango da. Paddelekoa, III.a izango da, eta ekainaren 13tik 22ra jokatu da. Ekainaren 10a izango da izen emateko azken eguna. 665 72 83 49 (Jabi Lasa) zenbakian egin beharko da.

# XIV orduko erronkari ekiteko guztia prest

**KIROLA** ● Igandean abiatuko dira mendizaleak XIV Orduko Ibilaldia egiteko helburuz; Berazubi izango da irteera eta helmuga.



Parte-hartzaileak Berazubin ibilaldia bukatu ostean, 2004ean. i.e.

### IÑIGO TERRADILLOS

Azkenean iritsi da lau urtean behin izaten den hitzordua. Hainbeste astez mendian prestatzen egon eta gero, 2.800-3.000 mendizaleak igande honetan irteerako dira XIV Orduko Ibilaldia burutzeko asmoz. Aralarko Adiskideak mendi elkarrekin antolatzen duen ibilaldia aurten 14. edizioa beteko du. 1925. urtean sortu zen lagunarteko zerbitzu bezala, eta handik 83 urtera gure eskualdetik kanpo oso eza-gun eta mendizale askorentzat huts egin ezin daitekeen erronka bilakatu da. Ez da nolana hiko ibilaldia, eta ongi prestatzea ezinbesteko baldintza da, eta hainbat mendi ibilaldi baliatu dituzte askok.

### Gipuzkoa eta Nafarroan barna

Gipuzkoako 10 herritan burutzen da ibilbide erdia, eta beste erdia, berriz, Nafarroan. Tolosa-Gaztelu-Uli (kontrola)-Merku/Gorriti (kontrola)-Lekumberri (kontrola)-Iribas-San Migel (kontrola)-Guardetxea-Igaratza (kontrola)-Amezketeta (kontrola)-Alegia-Tolosa da jarraitu beharreko bidea. Bide horretan zehar, parte hartuko duten mendizaleak ezezik


hauek animatzen eta giroaz gozatzera joango diren herritarrek ere izango dira, beste edizioetan bezala.

### Berazubi: irteera eta helmuga

05:00etan ekingo diote mendizaleek XIV orduko abenturari Berazubitik, eta bertara iristean amaituko dute. Erronka gainditzearan poza sentituz gain, atsedean hartzea baino ez zaie geratuko denei.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Nafar Estatuaren alde, Ausa Gaztelura mendi martxa egingo dute igandean: Goierriko eta Tolosaldeko Nafarrek antolatuta dute, jai giroa ere emanez.

# Igandean gaztelura

NEREA URBIZU

**A**usa Gaztelura mendi ibilaldia antolatu dute Goierriko eta Tolosaldeko Nafarrek iganderako. Txindoki Txiki bezala ere ezagutzen da mendi hau, Txindokiren parean izanik. 10:00etan abiatuko dira Larraitzetik. Gonbidapena zabala da eta bertan izango dira, besteak beste, Zizurkilgo, Tolosa, Alegia, Lizartza eta Villabonako nafarrak.

11:30ean tontorrean biltzeko asmoa dute, eta lehengo urtean bezala, gazteluan ondoren bandera zutituko dute, «Nafar Estatu» aldarrikatuko baitute. Nafarroako Gorteen ereserkia entzun ahal izango da mendian txistuen doinuaz eta «aurten ere kantatu egin nahi dugun», Julen Zinkunegi antolatzaileetako batek esan bezala.

**Aurten bigarren urtea izango da Ausa Gaztelura mendi martxa Nafarrek antolatzen dutena**

**Ausa Gaztelu, antzinako kostako bidea zaintzen zuen nafar gaztelua, gotorlekua da**

Komunikatua irakurriko dute ondoren eta batatzeko, prestatuta dauzkaten bertso pare bat botako dituzte. Erribera kantua ere entzun ahal izango da: «Jaz ere kantatu genuen eta oso ondo atera zen», adierazi du Zinkunegik.

13:30ean Larraitzen bilduko dira berriro, bertako tabernetan zerbait hartzeko. 14:30a aldera, berriro, lagunarteko bazkaria egingo dute bertako jatetxe batean. Bazkaltzen geratu nahi duenak, izena gaur eman beharko du ondorengo telefono zenbakira deituz: 607 111 202.

**Ausa Gaztelu mendiaz**

Zaldibia eta Abaltzisketa artean, Aralarreko mendilerroan, ia 1.000 metrora dagoen Ausa Gaztelua, antzinako kostako bidea zaintzen



Ausa Gazteluko gainan dauden aztarnak argiak dira. G. E.

## » HAINBAT DATU

- **Eguna.** Igandea, maiatzak 18.
- **Ordua.** 10:00etan. Ausa Gaztelura abiatuko dira.
- **Abiapuntua.** Larraitz.
- **Iraupena.** Ordu eta erdi inguru.
- **Antolatzaileak.** Goierriko eta Tolosaldeko Nafarrak.

## EGITARAUA:

- **11:30.** Tontorrean bilduko dira.
- **11:30-12:00.** Gazteluan bandera zutitu. Txistuz Nafarroako Gorteen ereserkia jo. Komunikatua irakurri. Bertso pare bat abestu.
- **13:30.** Larraitzen bildu berriro, bertako tabernetan zerbait hartuz.
- **14:30.** Lagunarteko bazkaria.
- **Oharra.** Bazkaltzen geratu nahi duenak, gaur arte du izena emateko aukera: 607 111 202.

zuen nafar gaztelua da. Txindokiren parean dago mendi hau.

XII. mendean jada azaltzen da dokumentuetan eta bere zeregina zera zen, «bide hau etagarai hartan Nafarroa zen eskualde honetako aktibitate ekonomikoa zaintzea». Hau da, bidea, belardietako sarre-ak eta abelbideak zaintzea. Hego-Mendebaldetik Enirioko galtzada gazteluaren ingurutik iragaten da.

Gaztelak Nafarroako Mendebaldeko konkistatu zuenean (Gipuzkoa barne) gaztelua muga bihurtu zen eta «Gaztelarekin derriorturik borroka egiten zuten

gipuzkoarren eta gure erresuma defendatzen zuten nafarren artean liskarrak izan ziren».

## Aurten bigarren urte

Aurten bigarren urtea izango da Ausa-Gaztelura mendi martxa antolatzen dutena. «Jaz hasi ginen eta ohitura hau mantentzea espero dugu datoen urteetan ere. Beti maiatzeko hirugarren igandean egin nahiko genuke».

«Guk gaztelutzat ulertzen duguna ez dago leku guztietan, hau da, batzuk gotorlekuak ziren». Ausa Gaztelukoan 5-6 lagun bizi zirela badakite dokumentazioari eta ikerketei esker, gaztelua izatera ez zen iristen, baina gotorleku simplea baino gehiago izan zen.

## Gipuzkoan 6-8 gaztelu

Gipuzkoako eremuan sei bat gaztelu daude eta noski, beste guztiak bezala, bijilantziarako, zaintzarako erabiltzen ziren Ausa Gazteluz gainerakoak ere. Distantzia jaki baten baitan eraikitzen zituzten, «eta ez bertatik bertara».

Nafarroako erresumak 280 gaztelu inguru zituen, eta hiru, Tolosaldean eta Leitzaldean: «Tolosaldean Ausa Gaztelu eta Mendikute ditugu Urkizutik gora abiatuta. Beste bat Leitza dago. Areson ere badela esaten da baina izan daiteke Leitzakoa eta Aresokoa gaztelu bera izatea». Dirudienez, Nafarroa Garaian daude gaztelu gehienak.



Hirugarren mailako ikasleak, Txinako joku batean gozatzen. N. URBIZU

# Txina hurbiletik ezagutzeko ekintzak

N. URBIZU

Olinpiar Jokoa Txinan izango dira aurten, eta komunikabideetan askotan jorratuko den ekitaldia izango da. Hori aitzakiatzat, Alegiako San Juan eskolakoek Txinako Astea antolatu dute astean zehar. Irakasleek argitu bezala «beste herrialde batetik etorritako ikasleen lurraldeak lantzen ditugu. Ez dugu Txinako inor, baina aukera polita iruditu zitzaigun Olinpiar Jokoa baliatuz».

Jolasorduetan bertako jokuak lantzen ari dira adin ezberdinetan antolatuta, eta gustatzen ari zaiela aitortu digute irakasleek.

Lurralde ezberdinetako asteak antolatzean ikasle eta guraso kanpotarren laguntza izaten dute, baina oraingoan, Ume Alaia elkarteari eskatu zaio, eta elkartearen kide batzuk ere laguntza eman die. «Egutegi txinatarrak, horoskopoa, ipuinak... utzi dizkigute. Harro oso ona egutegia izaten ari da: umeez zein urtekoak diren begiratu nahi dute, horoskopoa zein animaliarekin urtea den ikusteko».

Grafia ere ezagutzen ari dira eta hitz batzuk nola esaten diren ikasi dute. Musikako irakasleek bertako musika jartzen die ikasleei soinua berriki entzuteko helburuarekin.



## Bertsolaritzari gaztetik helduz

**ZIZURKIL** ● *Maiatza Saltsa* egitarauaren baitan Pedro Mari Otaño LH5 eta LH6 mailetakoko bertsolariek saioa eskaini zuten Atxulondon. Gaurkorako, San Isidro Egunerako ekitaldi antolatu dituzte eta bihar Otaño eskolaren 25. urteurrena dela eta *Atzo eta gaur* bertso eta musika emanaldia izango da, 18:30ean, atxulondon. I. GARCIA

## Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## † ANGEL ARZELUS ESNAOLA

Anaia frantziskotarra, aita jaingoak beregana eraman zigun atzo, maiatzak 14, 71 urte zituela.

-Goianbego-

Zarauzko frantziskotar anaia, bere anai-arreber, loba eta gainerako ahaideek, haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta etor zaitezela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko 18:30ean, Zarauzko aita frantziskotarren elizan egingo den hileta-elizkizunerako. Aldez aurretik, mila esker.

**ZARAUTZ**  
2008ko maiatzaren 15a

Helbidea: Frantziskotar komentua, San Frantzisko 2







'Informazio + Inposaketa' - eskatu zuten 10 lurjabe eta AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek. ASIER IMAZ

## 10 lurjabe ez dute baimenik eman AHTren zundaketak euren lurretan egin daitezzen

**Tolosa** » Alkateari eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariari planto egin zieten lurjabeek informazio gehiago eskatu.

ASIER IMAZ

Abiadura Handiko Trena ustez Tolosako lurretatik pasatuko da. Lur horien hainbat jabe Tolosako udaltxera joan ziren atzo, bertara deitu baitzituzten euren lurretan egin nahi dituzten zundaketen berri emateko.

10 lurjabeen ordezkariak eta AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak Tolosako alkateari eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariari «planto egiteko asmoz» agertu ziren bilerara. «Informazio orokorra jaso arte lurjabeek euren lurretan AHTren zundaketak egiteko baimenik ez dugu emango», esan zuten amaieran.

### «Lotsa gutxi eduki behar du!»

Behin udaltxean, Pavel Viñas eta hiru lurjabe elkartu ziren 10 lurjabeen izenean Eusko Jaurlaritzako ordezkariarekin. Batzarraren amaieran Pavel Viñasek prozeduraren inguruan hitz egin zuen: «Informazio orokorra ez digute eman orain

arte eta zundaketa batzuk egiteko baimen eske etortzen zaizkigu, lotsa gutxi eduki behar du! Gure ustez, eskubide osoa daukagu Tolosan egingo dutenaren inguruan informazio orokor eta txukun bat jasotzeko. Ondoren, baimena eman edo ez eman, norberak ikusiko du».

Pavel Viñasek «bilera berribate-tarako prest» aurkitzen direla aipatu zuen, beti ere informazio orokorra exijituz: «Hemen ordezkartzuten ditugun 10 kaltetuak ez gara hemendik pasako, informazio orokorra jasoko dugun bilera bat exijitzen dugu, orduan hitz egingo dugu zita jarri okupazio tenporalak tramitatzeko edo ez. Beraien aldetik kontrarik ez dute esan; horretarako baimenduak ez dardela esan dute, baina borondate ona dutela. Guk beraiek baino borondate hobea dugunez, bere horretan utzi dugu hizketaldia». Gauzak horrela gelditu dira udaltxean beraz, «bilera ematen baldin badute deituko dutela esan dute».

### «Egoera lotsagarria»

Tolosako AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek «Tolosako alkatearen, Jokin Bildarratzen, eta EAJren jarrera gaitzetsi» nahi izan zuten: «Gogor salatzen dugu sondeoen edo zun-

daketen deialdia egiteko alkateak erabili duen prozedura; izan ere, bakarkako bilerak antolatu ditu lurjabeekin, beraien indefentsiorako eta elkarren artean harremanik ez egoteko».

Bildarratz eta EAJri «azpikeriaz» ibiltzea ere leporatu diete. AHT Gelditu! Elkarlanak azaldu duenez, «azpikeriatan ibili eta informazioa ezkatzen baitigute, bestela nola uler daiteke zundaketak egin behar dituzten lurren jabeek deitzea eta ibilbidearen planoa udaltxean ez dagoela esatea? Ez dago eskubiderik!».

Tolosako AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek Udalaren informazioa ez salatzen behin eta berriz: «Denbora honetan guztian alkateak ez digu batere informazio orokorra eman, jabeek ez die esan zer eskainiko dien bere etxearrengatik edo bere lurrengatik. Egoera lotsagarri honetaz nazkatuta gaude. Lurjabeek ez dute zundaketak egiteko baimenik emango, aurretik informazio erreala bat eduki eta denon artean bilerak egin arte. Denok baititugu interes berdina. Gure aldetik proiektu txikitzaile eta inposatzaile honetaz informatzeko eta eztabaida erreala bat sortzeko konpromisoa berresten dugu».

**@ Inkestak.** Buruz buruko Piloteta Txapelketako finalerdietan Barriola eta Bengoetxea IV.a. Finalen nor izanen dugu? Sartu gure webgunean eta eman zure erantzuna. Horretaz gain jendeak aukeratu duen erantzuna ikusteko aukera izango duzu, irizkiekin batera.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## «Kriminalizatu nahi dute AAMren lana»

JULEN ZELARAIN » AAM aurkako auzian inputatua

IMANOL GARCIA

Julen Zelarain (Villabona, 1967), Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako auzian inputatua dago. Gaur *Preso eta theslarien eskubideen alde lan egitea ez da delitua* izenburupean hitzaldia eman go du, 20:00etan, Gurean.

### Zein da zure balantzea orain arte epaiketak eman duenari buruz?

Bi atal ezberdin daude. Lehendabiziko eguneko, inputatuen deklarazioekin hasi zena, guretzako oso adierazgarria izan zen. Ez genion onartu inongo zilegitasunik Auzitegi Nazionalari guri epaitzeko, Estatuaren errepresioan parte inplikatu dela erakutsi duelako eta azken urteotan motore bilakatzeko arri da. Bestalde, ez diogu onartzen Auzitegi Nazionalari AAM lan politikoaren fiskalizaziorik eta epaitzerik onartuko, hasieratik garbi baitago sustapen politiko bat izan duela instrukzioak. Beraz, uko egin diogu defentsa juridikoari. Adierazgarria izan zen lehenengo egunean epaileak nola bukatu zuen bere burua eta Auzitegi Nazionala justifikatzen.

### Defentsak deitutako lekukoek zer erkarpen egin dute?

Garbi genuen helburua ez zela lekuko hauek inondik inora gure alde egitea, baizik AAM existitzen bada errepresioa existitzen delako dela erakustea. Beraz, auzitan jarri beharreko errepresioa bera zen. Horregatik eraman ditugu lekuko hauek, beraiek esperientzia pertsonaletik Estatuaren errepresio



I. GARCIA

guztiak erakusteko. Tortura pairatu dituztenak, gerra zikina jasandakoak edo martxoaren 3an errepresioa pairatu zuten langileak izan dira bertan. Epaimahaia behin eta berririo saiatu zen lekukoak moztzen, horrek prozesuarekin ez zuela zerikusirik esanez.

### Nolako da Fiskaltzaren eta akusazio partikularren lana?

Oso lotsagarria izaten ari da. Azken batean bere helburua da AAMren edo beste edonork egiten duen lanaren kriminalizazioa. Esaterako, ia 40 ertzain eraman zituen lekuko bezala eta oinarri bezala epaitegien aurkako erasoetan Ertzaintzak egindako atestuak izan ziren. Nolabait lotu nahi zuten AAMk burutzen duela salaketabat Auzitegi Nazionalaren aurka eta orduan horren ondorio bezala epaitegiei eraso egiten zaiela. Hortik badirudi edonork kritika- ren bat lutzatzen badio Auzitegi Nazionalari zuzenean lotzen dutela bestelako erasoekin.

## Kultur Astea Alkizan, gaurtik igandera arte

ERREDAKZIOA

San Isidro egunarekin bat eginez, gaur hasi eta igandera arte iraungo du Alkizako Kultur Asteak. Haurrek hainbat ekitaldi izango dituzte egunotan: jolasak, txotxongilo tailerra eta mendi ibilaldia.

Aurtengo berritasunak frontenis txapelketaren finalak eta garagardo dastaketa izango dira. Bi ekitaldiak etzi izango dira. Bestalde, lau egunetan zehar argazki rallyan parte hartzen dutenak *lanean* ari- lako dira.

### » EGITARAUA

#### Maiatzak 15, gaur

- 20:00. Meza nagusia.
- 21:00. Afaria Ostatu jatetxean.

#### Maiatzak 16, bihar

- 16:30. Haurrentzako jolasak.
- 22:00. Kepa Fernandez de Lari- noarekin solasean Alkizari buruz, kultur aretoan.

#### Maiatzak 17, etzi

- 10:00. Txotxongilo tailerra, Koldobika Jauregirekin.

- 15:30. Spinning saioa frontoian.
- 18:00. Frontenis txapelketako finalak. Ondoren, garagardo dastaketa. Bakotzak bere afaria eraman behar du.

#### Maiatzak 18, igandea

- 09:00. Mendi ibilaldi. Ondoren sari banaketa eta euskal dantzen saioa. Gero kantujira herrian zehar.
- 14:30. Kantu eta dantza bazkaria frontoian.


## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesa dutenek deitu dezala ondorengo telefono zenbakira: 685 22 70 58.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bigelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu 665 70 86 35.



Karrepean dado handi batekin jolas egin zuten bertan bildu ziren haurrek. N. GARZIA



Musika ere jarri zuten eta umeak gustura aritu ziren kantari. N. GARZIA

# «Hezkuntza nazionalaren alde» lanean

**Hezkuntza** » 'Hezkuntza Sistema Nazionala Eraikitzen' lelopean atzo zenbait ekitaldi antolatu zituen Euskal Herriak Bere Eskola taldeak.

## ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldean Euskal Herriak Bere Eskola taldeak antolatuta zenbait ekitaldi egin zituzten *Herriaz herri, egunez egun, urratsez urrats, Leitzatik ere Hezkuntza Sistema Nazionala Eraikitzen* lelopean. Martxoaren 31n jarri zuten abian ekimen hau eta maiatzaren 30a bitarte herriz herri ibiliko dira, taldetik azaldu dutenez, «herri eragileak bere 6 urteko historian, apaltasunez, baina ilusio osoarekin egin nahi duen ekimenik indartsu eta herrikoiena» izanen da.

«Hezkuntza Sistema Nazionala Euskal Herriaren eskubidea da», diote Euskal Herriak Bere Eskola taldetik, «munduko nazio guztiek bere hizkuntza, kultura eta nortasuna mundu globalizatuan bizi dadin eskubidea dutelako eta hezkuntza delako beronen biziraupen eta garapenerako tresnarik egokiena. Baieztapen honetatik gaur egun Euskal Herriak bizi duen egoera arterako jauzia, ordea, handia da».

«Jauzi» horrekin jarraituz, Euskal Herriaren hezkuntza eskubideak «zapalduak» daudela diote.

«Beraien alde borroka egiteari garrantzi berezia eman nahi diegu tokian tokiko dinamika edo aldarrikapen propioei».

## Leitzako ekitaldiak

Hori dela-eta atzo 18:00etan Aurreran *Atzolanean Hezkuntza Sistema Nazionala* eraikitzen lelopean proiektio bat eskaini zuten, eta ondoren plazan Pitz erraldoiarekin jolas egin zuten. Amaitzeko argazki herritarra ateratu zuten.

## 'Urrats atzeraezinak'

Euskal Herriak Bere Eskola taldearen ustez, «Euskal Herriak atzeraezinak bilakatu diren urratsak eman ditu hezkuntza» eta hori erronka handi zein txikietan islatzen da. Erronka handi bezala ikastolen sorrera, 80. hamarkadako mugimendu pedagogikoaren loraldia, eskola publiko euskaldun berriaren aldeko masa soziala, ikasle mugimenduaren sorrera... aipatzen dituzte eta urrats txikiak ere ez dituzte ahazten: euskarazko talde hezitzaileak, euskal kulturaren hedapenerako dantza edo musika elkarteak...

## Bost tanto Irurtzunen alde

**Herriartekoa** » Joan den asteburuan Leitzaz Irurtzunen aurka aritu zen, eta azken honek 5 tantotako alde lortu zuen.

### NAIARA GARZIA

Joan den asteburuan hasi zen Herriarteko Txapelketan Leitzaz Irurtzunen aurka lehiatu zen. Bina partida irabazi zituzten, baina Irurtzunek tanteean 5 tanto ateratu zizkion Leitzazari.

Amazabal pilotalekuan jokatu zituzten norgehiagokak. Sagastibeltza Lasartek eta Gartziazenak Zudaiereri eta Uztarrozi aise irabazi zieten, 18-0eko emaitzarekin. Haur-kategorian, berriz, gauzak alderantziz joan ziren, Igartua eta Hernandezenak 3-18 galdu baitzuten Idoate eta Berezaren aurka. Gazteen mailan Jaunarenak eta Sagastibeltzak Zabaleta eta Galar-



Herriarteko Txapelketan, alebinak eta haur-kategoriakoak. HITZA

tzari irabazi zieten (22-16) eta nagusietan, aldiz, Lansalotek eta Iriartek Lazkoz eta Otxotorenaren aurka galdu zuten (8-22).

### Beste txapelketak

Herriartekoaz gain, beste 4 txapelketetan hartu zuten parte Aurrerako pilotariak joan den asteburuan.

Nafar Jokoetan 3 partida irabazi eta 3 galdu zituzten. Lizarrakoan ere gauzak berdintsu joan ziren, benjaminetan galdu eta hasiberrietan irabazi egin baitzuten.

Bestalde, GRAVN Txapelketan eta Zaramagakoan finalak galdu egin zituzten eta Koteto Ezkurra Txapelketa atzeratu egin zen.

## berria

**Kazetaritza praktikak** egiteko **bekadunak** hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

### GIPUZKOAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea  
**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

### BIZKAIAN

**Eguna:** maiatzaren 23a  
**Tokia:** Leioako campuseko BERRITUTAKO ERAIKINA (Reformado) 1. gelan  
**Ordua:** eguerdiko ordu batean

### ARABAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAko Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behea.  
**Ordua:** goizeko bederterti eta erdietan.

### NAFARROAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAren Iruñeko egoitza, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre.  
**Ordua:** goizeko 10:00etan.

**Probara curriculumak ekarri behar da**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

■ **Belauntza.** Ongi erosten ikasteko zenbait gomendio emango dituzte hirugarren adinekoentzat arratsaldean.

■ **Tolosa.** *Maiatza Borrokan* programaren barruan, Lorea Agirre eta Josemari Pastor kazetariak Saharan izandako esperientzia agertuko dute Kultur Etxean 19:30ean.

■ **Zizurkil.** Arantza Lorenzok *Elkadura desagokiaren ondorioak* hitzaldia emango du 17:00etan Elizpe jubilatuko elkarteak. Buakaeran merienda izango da.

### Zinema

■ **Tolosa.** 4 meses, 3 semanas y 2 dias filma emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### Deialdiak

■ **Alegia.** III. Bertso Paper Lehiaketa antolatu du Zazpi Astoren Gaienean bertsozale taldeak. Lanak Kultur eta Kirol Etxean edo [zazpiastorengaienean@gmail.com](mailto:zazpiastorengaienean@gmail.com) helbidera bidali behar dira.

■ **Baliarrain.** Banakako I. Frontenis Txapelketa izango da maiatzaren 31tik ekainaren 15era, asteburuetan. Izen-ematea, Tolosako Aralar Kirolak, 5 eurotan, bihar arte. Dagoeneko 40 lagunek eman dute izena.

■ **Tolosaldea.** Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa Alegiako liburutegian 17:00etan eta Orendaingo liburutegian 18:15ean.

### Irteerak

■ **Ibarra.** Lizarrara irteera antolatu du Bizi nahi jubilatuko elkarteak hila-ren 23rako. Izen-ematea, elkarte-an 30 eurotan (ez bazkideek, 32).

### Erakusketa

■ **Irura.** Ziri-enkaje, pintura, egur-taila eta eskulanetako ikastaroetako lanak, nahiz ikastolako haurrek egindakoak ikusgai dira Kulturunean, 17:00etatik 19:00etara.

■ **Zizurkil.** Mugarik Gabeko Medikak elkartearen *Krisi ahaztuak. Bizitza ezkiusiak* argazki erakusketa Atxulondo kultur etxean 12tik 16 eta Iriarte kultur etxean 19tik 23ra.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



## Laskorainen emanaldi arrakastatsuak

**TOLOSA** ● Laskorain Abesbatzak arrakasta lortu du Donostian eman dituen bi kontzertuetan, Naiara Mintegiaren zuzendaritzapean. Larunbatean Santa Maria parrokia jendez bete zen kontzertua entzuteko eta astehenean EHUko aulategiako eskileretan kontzertua ikusgarria eskaini zuten, leku bereziaren sonoritatea lagun. Bietan *Udaberria* kontzertua es-

kaini zuten Donosti Ereski Abesbatzak antolatutako II. Kultur Jardunaldien barruan (Norvegiar eskainiak). Laskorainekin batera Donosti Ereski, Ereskitxo, Eskifaia eta Norvegiako Abildso Bygdekor abesbatzak eta Et Incarnatus orkestra aritu ziren. Argazkian, EHUko aulategian emandako kontzertuaren une bat. HITZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Oñeka Artola Zabala (Alegia).**

Gaur 5 urte. Zorionak potxolital! Garazi eta etxekoan partetik.

**agurrak** urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesede, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**agurrak**

## Zinema euskaraz berria rekin



*Maiatzaren 24an*

filma DVD formatuan



*Maiatzaren 27an*

filma DVD formatuan



+ 6,95€



OHARRA: biltegiak bukatu arteko eskaintza